



## LAN TALDEAREN BILERA

**DATA:** 2014/07/15

**BILERA ZENBAKIA:** 12

**ORDUA ETA LEKUA:** 19etan Udaletxean

**PARTEHARTZAILEAK:** 5 parte hartzaile (3 emakume eta 2 gizonezko)

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

- **Aktak:** guztiak jada ikusgai daude herriko webgunean. Izenak ez dira agertzen.
- **Filmen balorazioa:** oso arrakastatsua izan da eta jarraitzeko asmoa agertzen da. Herritar batzuk pelikula aurretik edo ostean, tertuliatxoa egitearen ekarpena egin dute. Bestalde, herrian sentsibilizazio baliabide gisa oso egokitzat jotzen da. Agian merezi du filmak erostea liburutegirako eta horretan ahaleginduko gara aurrekonturik lortzen. Bestalde, SGAE ko kontua dago eta honen inguruan ere informazioa bilatuko da. Irailean erabakitzeke gelditzen dira: maiztasuna, datak eta gaiak edo filmak
- **Elikagaien bankua:** elkarte honek dirulaguntza eskatu dio udalari kontuan harturik hilero banatzen duen janaria. Adosten da herri ekimen ezberdinak pentsatzea dirua lortzeko: (bokadillon prestaketa, pintxo potea) eta aldi berean, janariak jasotzea Lurdesen-ean eta eskolan. Erabakitzeke gelditzen da zein ekimen eraman aurrera eta nola eta noiz janari jasotzearena egin.
- **Denbora bankua:** Bilboko auzo batean egiten duten esperientzia aztertzen da. Argi gelditzen da, interesgarria dela oso herriarentzat baina agian lantalde honetatik at egiteko ezer dela; eta aldi berean ondo zehaztu behar dela gaia, bestak beste agian zerbitzu trukaketa egin beharrean, interesgarritzat jotze delako, herriko jendeak dakiena besteeki konpartitzea ikastaro irekiak eginez adibidez. Aldizkarian gai honen inguruan ezer idaztea adosten da. Urrian landuko da.
- **Berdinbidea:** momentuz balorazio orokorra ez da positiboa, bereziki gazteak ez dutelako ondo engantxatu ekimenarekin eta ez dutelako jarraitu nahi.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
SGAE, pelikulak erosteko aukerak	Irailak 9	I. U.
Bakun denbora	Urrian	

### HURRENGO BILERA

**Hurrengo bilera, irailaren 9-an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.**

Gai ordena:

- Zinemaldiak
- Elikagaien bankua
- Aurrekontuak